


Musika Gida





Musika Gida


- | | |
|-----------|-------------------------|
| 5 | Presentación |
| 7 | Aurkezpena |
| 8 | Anari |
| 9 | Coti |
| 10 | Evaristo |
| 11 | Fermin Muguruza |
| 12 | Benito Lertxundi |
| 14 | Ruper Ordorika |
| 16 | Ines Osinaga |
| 18 | Iñaki Salvador |
| 20 | Carlos Tarque |
| 22 | Gorka Urbizu |



Siempre me ha gustado curiosear las listas de discos. “Los mas vendidos”, “los mejores del año”, “Los peores del año”, “Los mejores de la historia”... ¿Estará ese disco que tanto te fascina? ¿En que posición lo habrán colocado?.. Sintonizar en nuestros gustos con aquellos que admiramos o con los que nos identificamos supone una especie de reafirmación de nuestro criterio. La vinculación de la música con las listas es absoluta. Da lo mismo que sean “radiofórmulas” o los altavoces más progresistas, todos sienten la necesidad de calificar y de clasificar. Las listas ordenan hasta cierto punto el caos en el que vivimos, la sobreinformación que recibimos. Vivimos en una sociedad que se aferra cada vez mas a los rankings ya sea en el mundo musical, económico, político o deportivo. Si no tenemos base alguna para elegir algo no tenemos más remedio que fiarnos de los criterios de los demás. El gran problema es que en muchos casos esos criterios vienen condicionados por una serie de intereses que en el fondo tienen un motivo final de carácter económico. En esta guía, nuestra única intención ha sido, el conocer, sin ningún tipo de presión los gustos de una serie de artistas que con total libertad han confeccionado unas listas con los discos que más les han gustado. A algunos de

ellos les conocerás, quizás hasta te gusten. En ese caso tu curiosidad se verá satisfecha cuando descubras que en esas listas y en algunos momentos coincidas con ellos. Descubre sus gustos, sorpréndete y lo que no conoczas disfrútalo en la biblioteca. Quizás termines como el protagonista de aquella película dirigida por Stephen Frears que se llamaba “Alta Fidelidad”, cuyo protagonista (John Cusack) se pasaba el día haciendo listas de las mejores canciones. Una divertida y sugerente distracción.

Forki



Ameriketatik heldu zen neska gazte hura. Berak hemezortzi bat urte izango zituen orduan, gu baino puskaz zaharragoa. Ile gorria zeukan, eta aurpegi zurian orezta sorta sakabanatua, belarrietan musika entzuteko kaskoak. Walkman bat hurbiletik ikusten nuen lehenbiziko aldia izan zen hura eta bera konturatu zen: Tom Waits da —esan zidan—. Tongueis aditu nion nik. Eta baiezko keinua egin nion buruarekin, delako hura nor zen banekiela adierazteko asmoz, nahiz nire asmo bakarra walkmana probatzea izan. Jackie (hala zuen izena neskak) harrituta gelditu zen, ni bezalako ume moko batek nolatan ezagutzen zuen Tongueis ezin ulerturik. Gustatzen al zaizu? —galdetu zidan. Eta nik baitetz erantzun. Zorionez, eskolan frantsesera hautatua nuen eta horrek salbatu ninduen detaile gehiago ematetik. Eta walkmana utzi zidan Tom Waitsen musikarekin berak egindako miszelanea hura entzun nezan. Lehenbiziko impresioa, tongueis hura buru barruan nuela izan zen, musika entzuteko perspektiba berria zen niretzat. Gezurra ematen zuen horren kasko txikiekin hain ongi aditza. Une horretan bost axola zein ari zen kantari, axola zidan bakarra walkmana zen. Badakizue, kotxea erosi berri duzu, eta probatzearen, edozein norabide hartzen

duzu, eta dituen gailu berri guztiei eragiten diezu, eta ederki dabil, eta berri usaina... Bidea une horretan gutxienekoa da. Dena dela, duzun egunaren arabera, agian bide ertzeko zerbaitek erakarriko du zure arreta, sagarrondo txuri baten lore zuriek, goroldioz estaliriko harri irmo batek, bailara berde baten aldaera emeak... Eta gailua, kotxea, konturatu gabe, bigarren mailako bihurtu da, edo hirugarren, edo milagarren mailako. Hori guztia ikustea, sentitzea ahalbidetzen dizun tresna besterik ez. Hori gertatu zitzaidan walkmanarekin, tongueis delako horren “Jersey girl” entzuten ari nintzela, Jackie (hala baitzuen izena neskak) niri begira zegoen, kolore zehaztugabeko begi argiez, tongueisek “cause tonight i’m gonna be with you” abesten zuelarik, sha la la la la la la, eta ez nekiengeleraz nola eskatu Jackieri dantatzeko. Zoritzarrez frantsesera hautatua nuen eskolan.

Txuma Murugarren

Anari



1 Nick Cave and The Bad Seeds

Your funeral... my trial (1986)

Musikaren larrea hain zabala izanik, zinez zaila da hesia horrelako soro txiki batean herstea. Gauza askoren gainetik maite dut musika, era anitzetakoak, baina bat aukeratzerakoan Nick Cave aukeratu dut.

Oso gaztetatik entzun dut abeslari australiarra, beste talde, abesti edo abeslaririk une-unean. Gustuko izan badut ere, Nick Cave betidanik jarraitu dut. 1990 aldera iritsi zen, Azkoitian, gure esku artera “Your funeral...my trial” diska, bere laugarrena, non ondoren jorratuko duen bideari ekiten dion: melodía, tensión, ixil-



lune eta hitzen arteko uztar-keta maixuari. “The carn” edo diskari izenburua ematen dion abestia bera, rock edo blusean bere burua gizaitu nahi duen pizti punk-a bezala ageri da.

Hitzak oraindik trakets, zerbaiten bila dabile-naren itsu-kolpea du nola ahotsak, hala Blixa Bargeld-en gitarrak ere. Neuk ere itsu-kolpeka jarraitu dut, beti.

2 Leonard Cohen

Songs of love and hate (1971)

3 Erik Satie

Gymnopédies feat. Johannes Cernota

4 Giant Sand

Chore of enchantement (2000)

5 The Palace Brothers

There is no one what will take care of you
(1993)

6 Mikel Laboa

14 (1994)

7 Tom Waits

The Black Rider (1993)

8 Fugazi

Repeater + 3 songs (1990)

9 pj Harvey

Rid of me (1993)

10 Portishead

Dummy (1994)

Coti



1 The Beatles Help!

Aunque es indudable el valor artístico de este disco, mi elección es mas emocional que otra cosa. Fue el primer disco que me marcó para siempre. Me lo regaló mi viejo cuando cumplí ocho años, todavía conservo el original intacto y cada canción de *Help!* es para mí reencontrarme con la pasión que me obligó a ser músico de por vida.



**2 The Rolling Stones
Stripped**

**3 Beach Boys
Pet sounds**

**4 Charly Garcia
Clics modernos**

**5 Bob Dylan
Blood on the tracks**

**6 Prince
Love Sexy**

**7 Neil Young
Harvest**

**8 Fito Paez
El amor después del amor**

**9 Stevie Wonder
Song in the Key of Life**

**10 Tom Petty
Full moon fever**

Evaristo



{Solo 10?
En orden de recuerdo.

1 Sex Pistols Never Mind the Bollocks

Porque no hacía falta saber inglés para entenderlo, por ese pedazo guitarrón que nunca más he oído y porque es un disco lento con una caña del copón.

Me da igual si era un montaje o no etc... etc... o si fuman pipas de calabaza y otras gracias, a mí me hizo pensar !! esto es !! y todo lo demás se fue a la mierda.



**2 Damned
Damned, damned, damned**

**3 Damned
Machine Gun Etiquette**

**4 The Clash
Give 'em enough rope**

**5 Wire
Pink Flag**

**6 Slaughter & The Dogs
Do it Dog style**

**7 Johnny Moped
Cycledelic**

**8 Vibrators
V2**

**9 U.S. Bombs
War Birth**


**10 Stranglers
Live (X-cert)**

Fermin Muguruza



1 Toots & The Maytals Live

Oso zuzeneko disko gutxik azalarazten dute eskenatokoiko sua, izerdia eta komunikazioa. Otis Reddingek grabatu zuena Monterreyen eta Ramonesena datozkit burura, baina Tootsek egia zuena, blues, godspell, funky, reagge eta ska, maisutasunez eta indarrez interpretatzu, beste edozein estudioko diskoa baino, nire diskorik gogokoena dut. 1980an argitaratu zen eta segituan eskuratu nuen. Zinta bat grabatu eta poltsikoan eramatzen nuen beti. Edozein tabernan nengoela, bigarren zerbeza edan eta gero, tabernariari eskatzen nion zinta ipintzea eta dantzan jartzen nintzen. Hortik oso gutxira, erritmoez jendea kutsatu eta jaia hasten zen.



2 The Clash

London Calling

3 Redskins

Neither Washington, nor Moscow

4 Public Enemy

It takes a Nation of Millions to Hold Us Back

5 Michael Franti

Stay Human

6 Specials

The Specials

7 Urban Dance Squad

Mental Floss for the Globe

8 Linton Kwesi Johnson

Bass Culture

9 Fugazi

Repeater

10 Lauryn Hill

Unplugged

Benito Lertxundi




I Bob Dylan Live 1964

Philarmonic Hallean eskeinitako kontzertu historikoaren grabaketa da. Dylanekiko ezagutza kantu hoiekin batera egin nuen. Nik bere ibilbide guztia aipatuko nuke, izan elitzaidake posible izango azken 40 urteotako musika bera gabe.

Oso urrundik zetorren, eta oraindik bere patua azaleratzeko zegoen.

Dylanen lehen profesional urratsek Greenwich Villageera garamatzate, 1961 urtea zen, bere New Yorkera heltzearen lekuko nagusia. Hortik abiatzen da bardoaren ibilaldi



iniziatioko. New Yorkera iritsi berritan, bere patuaren atzetik ibili zen Greenwich Village inguruan.

Lou Levyk, Leeds Music Publishingen jabeak, Jack Dempsey boxealari haundia aurkeztu omen zion:

-Oso argala hago pixu haundikoa izateko, mutikoi! Kilo batzuk hartu beharko dituk, hobeto jantzi, dotoreago azaltzeko..., nahiz eta ez duken arropa askorik beharko kuadrilaterora igotzean!

-Ez duk boxealaria, Jack, kantaria duk eta disko bat egingo diagu bere kantuekin-erantzun omen zion Lou Levyk.

Disko haren ondorioz, nerbio berri bat nabaritu zuen musika munduak eta jarraitzaile sutsu bezain fanatikoak sortu ziren bere inguruan. Beragandik, gustokoa etzizaion rola espero zutela konturatzen hasia zen, eta nolabait ihes egin behar zuela guzti hartatik.

Nik bere ibilbide guztia aipatuko nuke, izan ere elitzaidake posible izango azken 40 urteotako musika Bob Dylan gabe ulertzea, bainan bat aipatzekotan, hauxe: *Live 1964: Philarmonic Hallean eskeinitako kontzertu historikoaren grabaketa da. Dylanekiko ezagutza kantu hoiekin batera egin bainuen.*

2 Pete Seeger sings Woody Guthrie

68an argitaratu zen disko hau. Bertan entzun nuen lehenaldikoz Pete Seeger, eta aldi berean Woody Guthrieren kantuak ezagutu. Pete Seeger entzutean, kantua ulertzeko modua nigan aldatu egin zen.

3 The Beatles Help!

Harrigarria egin zitzaidan lehen musikari hauen frexkotasuna eta soinu bitxia. Kasu honetan ere beren ibilbide osoa nabarmendu beharko litzateke. Aipagarria *Yesterday*, klasiko bihurtu den kantuia.

4 Leonard Cohen Sisters of mercy

Kantatzeko eta kontatzeko gautiar berri bat sumatu nuen beregan, eta geroztik nere kuttunenetako bat da, dudarik gabe. Bere moduak dijoazkidalako neuri ere.

5 Alan Stivell Chemins de terre

70. hamarkadan, modu batean denboran aurreratu egin zela dut susmoa, inork ez bezala, keltiar musikaren lurrina eta rockaren arteko lotura era natural eta sinesgarrian egin zuelako.

6 Tom Waits Orphans

Aspaldidanik dut ezaguna Tom Waits, bilduma honetan inoiz ez bezela nabari zaio bere aparta eta bilatzaile izaera asekaitz bat.

7 The Chieftains Live

77an argitaratu zen. O'Carolanen musikalak inork ez bezala interpretatu duen taldea da. Norbaitek esan zuen isiltasunaren ondotik, inoiz entzun zuen soinurik ederrena The Chieftainsena.

8 Pink Floyd Atom Heart Mother

70ean argitaratutako diskoa. Musikarentzat aurrerapauso harrigarri bat izan zen, rock sinfonikoaren aintzindari bezela dauzkat, nik behintzat. hori ez dut uste, berek bezela inork jorratu duenik.


9 Bill Douglass Deep Peace

Bat batean Douglasek aldatzen du bere musika konzeptua, eta zenbait poeta klasiko lagun, disko benetan zirraragarria osatzen du, oharkabean barruraino sartzen dena.

10 Bruce Springsteen Tracks

Jenuinoki zuzeneko animali artista baten begirada zabal bat, bilduma moduan.

Ruper Ordorika



Ezin ba nire “hamar disko garrantzitsuenak” aukeratu, ezin. Horretara jarrita modu bakarra iruditu zait euskal diskoen artean aukeratzea. Neure mutiko denboretan eta hastapenetan entzuten nituenak, gehien bat. Batzuk ez ditut aipatuko arrazoi musical hutsengatik baizik eta musikariarekin edo disko jakin horrekin edukitako harremanagatik.

I Zuberoa 1 eta 2: (Herri Gogoa)

Herriko Musika Sorta izeneko bilduman argitaratu ziren bi diskook. Neure eskuetan hartu nituenetik ez nintzen ase harik eta kantu guztiak ikasi arte. Sasoi hartan, 16 urterekin-edo, zaletasun haundia neukan blues disko akustikoekin-eta, bakarren bat topatzeko zoria genuenean, eta mundu anglosaxoiko hainbat musikari “modernoekin” ...Xiberuko kantari zaharrak entzutea itzelezko aurkikuntza izan zen niretzat. Ezin sinistu Etxahun, Xuburu... eta kantari zahar haien doinuen edertasuna eta kantu bakan haien oihartzuna. Baten batek esan du jada Xiberuko kantu zaharrak euskal kantuaren “standarrak” direla. Nik ere baitetz uste dut.



2 Mikel Laboa 4 EP:

Lau herri kanta, 1964 (EP)
Ursuako Kantak, 1966 (EP)
Bertolt Brecht, 1969 (EP)
Haika Mutil, 1969 (EP)

3 Mixel Labeguerie

Labeguerie'ren lau kanta:

4 Natxo de Felipe

Cassete berdea

5 Koxka

Koxka

6 Errobi

Ametsaren bide

7 Antton Valverde, Xabier Lete,

Julen Lekuona

Bertso zaharrak

8 Hertzainak

Salda badago

9 J.C. Perez

Atlantic River

10 Tapia eta Leturia

Hain zuzen

Ines Osinaga (Gose)



I Garbage

Version 2.0 (Almo Sounds, 1998)

Beste bederatzixak aukeraketia bape errexako etxaten arren, ez da gatxa izen neure 10 disko kuttunenaren artien kuttunena, alegixa, zerrenda honetako lelengo postuen zein juen biherko zan erabakitzia.

Askotan pentsau izen dot geuk diskuak aukeztatu biherrien, diskuok eurok diela gu harrapetan gaituztenak. Horrexegaitik diontuet, Garbage-en disko laranjia (beronen benetako izena Version 2.0 izen arren, neuretako beti izengo da Disko Laranjia) bera izen zala neure bille etorri zana. Momentu justuen eta toki egokixan euen bera, eta neu handik pasau... Energixa kontue izen zan.

Segiruen enamorau nindduen. Begixetatik hasi eta belarriraiño sartu jaten. Artien sekula entzun bako musika klase bat deskubriru eusten talde honek, musikia ulerketako beste modu bat: makiñak eta arimia.

Beste disko askok be topau naue ordutik, batzuk geldittu die neuaz, beste batzuk igex eiñ duzie... Baiña eztitutu sekule ahaztuko lelengo aldiz Garbage-en Disko Laranjia entzun naueen sabelien sentiru nittuen txinddurrixak. Bizirik ninguen seiñale, eztozue uste?

On Egin!



2 Saint Germain

Tourist (Blue Note, 2000)

3 Hertzainak

Hertzainak (Oihuka, 1984)

4 Bajofondo Tango Club

Bajofondo Tango Club (Universal, 2003)

5 Yann Tiersen

Amelie BSO (Virgin, 2001)

6 Doctor Deseo

Hay cuentos aún por inventar (Discos Suicidas, 1998)

7 Björk

Debut (Elektra, 1993)

8 Sugarcubes

Here Today, Tomorrow, Next Week (Elektra, 1989)


9 La Bottine Souriante

Jusqu'aux p'tites heures (D.E.P., 1991)

10 Backyard Babies

Making Enemies Is Good (BMG/RCA, 2001)

Iñaki Salvador



1 Chick Corea *My Spanish Heart*

Destaco este disco de entre los escogidos, cuyo listado no sigue un orden que signifique una gradación que explique su mayor o menor importancia o influencia en mi vida musical, al verme obligado a elegir uno sobre el que explicar su elección. Se trata de un álbum de 1976, año en que yo cumplía 16 años. Era un momento decisivo en mi vida de estudiante ya que debía optar a no mucho tardar por encaminar mis pasos hacia el mundo de la música o bien adentrarme en derroteros más convencionales. Y qué duda cabe que en tan importante elección influyó decisivamente la música que llegó a mis manos en formato de vinilo.

En esos años compaginaba mis estudios de bachillerato con los musicales, habiendo completado ya una parte importante de la carrera de piano clásico. Creo que ese era el motivo (el cierto conocimiento que tenía ya de la técnica y estética de la llamada “música culta”), la razón principal por la que me llamaban mucho la atención las músicas que teniendo un grado elevado de elaboración similar al de la música clásica se movían, sin embargo, dentro de unos parámetros armónicos y rítmicos que me atraían especialmente aun no com-

prendiéndolos del todo: el jazz había empezado a enamorarme.

Este disco de Chick Corea, más de 30 años después, sigue pareciéndome una obra maestra de la música en mayúsculas: no es clásico, no es jazz, no es flamenco, y es todo eso al mismo tiempo. Chick Corea es de esos artistas que no admiten etiquetas, su creación musical sobrevuela todas ellas y a lo largo de su espectacular carrera, aún en marcha y con enviable salud creativa, no ha parado de sorprender por su versatilidad, frescura y voz propia. Este disco estimuló de forma decisiva mi curiosidad por una música para mí en aquél momento técnicamente inexplicable y, por ello, tremendamente atractiva.

2 Silvio Rodriguez
Mujeres

3. Keith Jarrett
Standards Vol. I

4 Vinicius De Moraes
En La Fusa Vol. I

5 Joan Manuel Serrat
Mediterráneo

6 Los Canarios
Ciclos

7 Weather Report
8.30 Live

8 Supertramp
Crime Of The Century

9 Lou Reed
Rock 'N' Roll Animal

10 Mikel Laboa
Lau-Bost

Carlos Tarque (MCian)



1 The Beatles Revolver

El disco de gran cambio y experimentación de los Beatles, donde se abrían a la psicodelia. Para mí el mejor de ellos.

2 AC/DC Highway to hell

Este disco, además de ser el mejor disco de AC-DC, para mí supuso el descubrimiento del hard rock, y el despertar en mí del fenómeno fan. La imagen de Angus en la portada con los cuernos y el rabo de demonio era la esificación del pecado y en definitiva, la atracción que tiene el rock.

Musicalmente creo que tiene los mejores temas de boogie rock que sólo AC-DC saben hacer, como *Girls got rythym* o *If you want blood...*

3 The Rolling Stones Exile on Main Street

Disco doble de los Stones en donde se mezcla la esencia pura Stones con el country americano y el sonido Gram Parsons. Joyas como *You got the silver* o *Happy...*



4 Led Zeppelin Led Zeppelin IV

Uno de los mejores discos de la historia del rock. El espíritu del Zeppelin en temas como *Black dog* o la archiconocida *Starway to heaven*, un himno del rock de todos los tiempos.

La portada y el dibujo interior suma todo el misterio a esa obra que hizo grandes a los Zepp.

5 The Black Crowes

Shake your money maker

Primer disco de la banda de Atlanta que significó la vuelta del rock'n roll retro y sureño en los 90's. Un disco lleno de actitud y esencias alcohólicas que recuerdan a los Faces y a los Stones. Para mí un motor de impulsión para crear M-Clan a principios de esa década.

Tema estrella *Jealous Again*.

6 Nick Cave Nocturama

Un disco importante para mí en su momento, por la enseñanza de que dentro del punk se puede ser un perfecto caballero, un crooner poeta de la oscuridad que crea melodías atemporales y paisajes intranquilizadores. Tema favorito...*There is a town*.

7 Chet Baker Chet Baker sings

Intento hacer una selección de discos abierta y que pueda abarcar varios estilos. Aquí Chet Baker, trompetista de jazz en su faceta de cantante. Increíble escuchar cómo un tipo con una vida tan dura (heroína, cárcel) puede cantar de una manera tan dulce al amor y a la vida.

8 The Jayhawks Tomorrow the green grass

Una época interesante de mi vida tuvo este disco como banda sonora. Canciones luminosas de folk rock, herencia Byrds. Pura música americana para mañanas soleadas con armonías a dos voces y guitarras acústicas.

9 Miguel Ríos Rock and Ríos

Este es un disco doble en directo de rock español que vendió 400.000 discos en el 82. Recuerdo tardes de verano escuchándolo con la portada en la mano.

Miguel es el cantante español que más me ha influido a través de los años. Reflejo de una época de cambio social y político, es indispensable para entender el rock en España.

10 Los Rodriguez Buena suerte

El grupo que devolvió el desparpajo al rock en castellano en España. Antes de su gran disco *Sin Documentos*, encontramos aquí unos Rodriguez más inocentes y con muchas ganas de todo.

Me ayudó mucho a perder el miedo a cantar en castellano.

Gorka Urbizu (Berri Txarrak)



1 Rage Against The Machine Evil Empire

Nik 14 urte neuzkan 1991ean. Musika atenazioz eta intentzioz entzuten jarraitzen dut oraindik ere, baina 14 urte dauzkazula entzuten duzunak beste edozerk baino gehiago markatzen zaitu. Horregatik daude 1991eko hainbat disko nire zerrenda honetan. RATM-en lehendabiziko diskoa ere garai hartan irten zen –apur bat beranduago-. Beti egin zait gaitza nire diskorik “onena” nabarmentzea (baita 10 “onenak” ere), disko bakotzak bere momentua duelako eta alderantziz, momentu bakotzak bere diskoa. Horregatik beste edozein aipa nezakeen, baina “Evil Empire” izan bada, nire kuttunetako bat.



Ez da lehen aipatu RATM-en lehen diskoa (oso ona hura ere), baizik eta bigarrena. Play sakatu eta ezin hasiera indartsuagorik ima-

ginatu: People Of The Sun, Bulls On Parade eta Vietnow. Hatsalbo geratzen da bat. Hortik aurrera, RATM eta bere unibertsoa, alegia: era organikoan jotako hip-hop; Black Flag-en hardcorea eta Zeppelinaren riffak behar bezala nahasteko lezioa (disko honetan dago Bonham jaunak bizirik egotera egun aukeratuko lukeen bonbo soinua); AEB-en imperialismoaren aukako aldarria, AEB-tatik bertatik egina; Tom Morello gitarjole estralurtarra; nortasuna, amorrua eta errima: Rage Against The Machine.

2 Weezer Blue Album

3 Pedro The Lion It's Hard To Find A Friend

4 Tom Waits Closing Time

5 Nirvana Nevermind

6 Metallica Black Album

7 Kyuss Blues For The Red Sun

8 The Weakerthans Reconstruction Site

9 At The Drive-In Relationship Of Command

10 Lisabö Ezarian



biblioteka

Musika Gida

10 disko kuttunenak

Los 10 discos favoritos de

Anari

Coti

Evaristo

Fermin Muguruza

Benito Lertxundi

Ruper Ordorika

Ines Osinaga

Iñaki Salvador

Carlos Tarque

Gorka Urbizu



kultur
ate